



A eredua

## IRAKASKUNTZAKO HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK

HE2  
(C1 maila)

## PROBA IDATZIA

Idatzi zure kodea:

|  |  |  |  |  |  |  |  |  |  |
|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|
|  |  |  |  |  |  |  |  |  |  |
|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|

## AZTERKETA HONETAZ

- Proba honek hiru ariketa ditu: 1) Irakurmena 2) Idazlan luzea 3) Idazlan laburra.
- Denbora: **3 ordu**.

## IRAKURMENA

### Zergatik zaitut gustuko?

Ipurdi tentea gehi gerri estua gehi ezpain haragitsuak berdin edertasuna? Hori astakeria! Ekuazio bat ez garela esango didazu... baina kanonek, teoria biologikoez eta historiako zenbait **...(1)...** kontrakoa diote. Erakargarri suertatzea ezaugarri biologikoa da, ala pertzepzioak, kulturak eta gizarteek ezarritako ilusia?

Gure animalia-senak gidatuta ezaugarri zehatzak dituen edertasuna bilatzen dugula defendatzen dute teoria ebolutiboek. **...(2)...** edo kumeak zaintzeko dituzten ezaugarri fisikoen arabera aukeratzen dute bikotekidea animaliek; zergatik guk ez? Gaztea (adin ugalkorrean) eta espezieari jarraipena emateko indartsua: horra biologikoki bilatuko **...(3)...** bereizgarriak. Kanpoko itxurari ematen diogun arretaren atzean **...(4)...** legoke, eme eta arren jarrera sexuala biologikoki erabakita baitago, Richard Dawkins biologoaren Gene Egoistaren Teoriak dioenez. Ugalketaren xedea zein da? Geneak zabaltzea eta espezieak bizirautea, eta hori lortzeko **...(5)...** gabeko geneak bilatzen ditugu. Itxurak adierazten du geneen kalitatea eta horregatik da garrantzitsua gure aukeraketan. Inkontzienteki egiten dugun **...(6)...**, hainbat ezaugarri hartzen dugu kontuan: adibidez, harea-erloju forma emakumeengan eta aurpegi simetrikoak, asimetriak arazo genetikoak ezkutatzen **...(7)...**.

"Gizateriaren historiak baieztatu du pertsona batzuen erakargarritasuna beste batzuen baina handiagoa dela. Ikaragarria da **...(8)...** ebolutiboa egotea, eme eta ar asko dagoelako, eta egongo da eme bat **...(9)...** nahi dutena eta beste bat inork nahi ez duena... Baina hala izan da beti", uste du Xavier Rubert de Ventós filosofo kataluniarrak. Edertasuna pertsonok berezkoa dugun sena dela adierazteko, aipatu **...(10)...** da hainbat ikerlarik 1990ean egin zuten esperimentua: hiru hilabeteko umeek nahiago zituzten helduok edertzat ditugun aurpegiak itsusitzat ditugunak baino.

Premisa horietatik abiatuta, **...(11)...** bat baino gehiago egin da liraintasun gorena irudikatu nahian. 2001ean, **...(12)...**, hainbat zirujauk hiru aurpegi **...(13)...** uztartu zituzten ordenagailuan (Mendebaldekoa, afro-latinoa eta Ekialdekoa) eta *Nature* aldizkarian argitaratu zuten, baina emaitza ez zen preseski ederra izan. Azken finean, *Perception* aldizkarian argitaraturiko beste **...(14)...** batek agerian utzi duen bezala, edertasun irizpideak sozialki antolatuta daude: familiarak edo lagunak direnek antzeko balorazioa egiten dute ederra zer edo nor den zehazteko garaian. Konklusioa? Animaliatasunak edo **...(15)...** zerikusirik izango duela agian, bai, baina dudarik gabe, inguruak kutsatuta gaude dagoeneko.

Arteak, literaturak, modak, zinemak, publizitateak... nabarmen eragin dute herritarren pertzepzioan, belaunaldiz belaunaldi; **...(16)...** gaur egun, irudiaren gizartean. "Edertasuna ilusio bat da, zentzumenetan **...(17)...** moduko bat sortzen duen ilusioa, eta ilusio hori irudiek eragiten dute. **...(18)...**, edertasunaren ilusioa da gure kulturak historian zehar irudiari eman dion adiera desberdinen irudikapena", diosku Jorge Lozano semiologak.

Gaurko munduan, **...(19)...** jasotzen ditugu ederra zer den eta zer ez finkatzen diguten mezuak. Kultura zehatz baten baitan jaio izan ez bagina esango genuke depilatuta egotea ederragoa dela? Bakeroak txandala baino eleganteagoak direla? Beltzaran egoteak edertzen gaituela? Egia da hedabideek ez dutela **...(20)...** bakarra saltzen, komertziala izateko errentagarriagoa baita edertasun politeista. Baina berez arketipoak dira, Hollywoodek betidanik **...(21)...** dituen estereotipoak, garaian garaiko modara egokituak.

Eta nolakoak izan dira igualik gabeko emakumea eta gizona Mendebaldeko historian? Merezi du estetikaren joan-etorriari **...(22)...** azkarra egitea. Ezagunak dira Historiaurreko Venus mamitsuak, ugalkortasunari lotutako ezaugarriak (bularrak eta aldakak) azpimarratzen **...(23)...**. Egipton, itxura **...(24)...** bilatzen zuten: gorputz garaiak, begi handiak, ezpain haragitsuak, hanka argalak, bular sendoak (emakumeek) eta bizkar zabalak (gizonek). Gaur **...(25)...** eredutik ez litzateke asko aldenduko, ezta? Gogoratu Nefertitiren busto ederra.

Mundu klasikoan, edertasuna eta gorputza **...(26)...** desioa herritar oroengana zabaldu zen eta gaur arte gehien hedatu den kanona ezarri zuten: armonia zen arau nagusia. Grezian, aurpegi eta gorputz proportzionatuak zituzten maite, gihartsuak, ez koiperik ez bular handirik. **...(27)...** Erroman, nahiz eta Inperioaren garaipenak eragin berriak ekarri zituzten: esaterako, herri germaniarren konkistak ilehori izan nahia zaletu zuen emakume erromatarren artean.

Erdi Aroan, erlijioaren **...(28)...**, gudek eta epidemiek bigarren mailan utzi zuten edertasunaren gaineko ardura, baina aurpegi zurbilak eta obalatuak, luzexkak **...(29)...** omen zituzten. Eta Errenazimenduak ideal klasikoei bide eman zien atzera. XV-XVIII. mendeetan, emakume haragitsuek zuten **...(30)...** gehien, azalez zuriak, jatekoa zutela eta kanpoan lanik egin behar ez zutela esan nahi **...(31)...**; aberatsak zirela, alegia. Adi bestela Rubens

# A eredua

margolariaren *Hiru graziak* koadro ospetsuari. Gizonezkoak harro zeuden halako neskekin ezkontuta egoteaz, **...(32)...** zitzaketela adierazten zuelako. **...(33)...**, egoera sozial, politiko eta ekonomikoetara lotua egon da beti edertasuna, klaseen bereizgarri, tartean moda dela.

Eta XX. mende aldrebesera iritsi gara horrela: 50eko **...(34)...** biribiltasuna (Marylin Monroe), 70eko argaltasuna (Tweegy fenomeno), 90eko *top model* bereziki meheak, eredu androginoak, forma ezinezkodun bideojoko eta panpinak (Lara Croft, Barbie), hedabideek eta publizitateak gustu **...(35)...** sustaturiko arketipo askotarikoak (*metrosexuala, esplosiboa, delikatu*)...

Hainbat teorikoren arabera, pisuaren eta moda-estiloen aldaketa nabarmenak kontuan hartu gabe, edertasunaren arauak nahiko **...(36)...** dira historian; **...(37)...**, Venus klasikoak, Nefertiti, hiru graziak eta Angelina Jolie erakargarriak direla gaur eta duela 1.000 urte. Baina aldi berean, gaur ez **...(38)...** polita irudituko maien kulturak hain edertzat zuen estrabismoa, mesopotamiarren antzera bekain bakarra margotzea edota Egipton bezala buru atzealdea lotzea kono forma har zezan, faraoi batek hala zuelako. Finean, **...(39)...** zer den eta zer ez baloratzeko, irizpide **...(40)...** hartzen ditu kontuan gizakiak, garai, gizarte, kultura eta eragin zehatzen baitan.

Mikel Garcia, *Argia* (2009-09-06) (moldatua)

**Erantzun zuzenei dagozkien letrak markatu behar dituzu erantzun-orrian.**

|           |                                                                |           |                                                                |           |                                                                  |           |                                                               |           |                                                                                  |
|-----------|----------------------------------------------------------------|-----------|----------------------------------------------------------------|-----------|------------------------------------------------------------------|-----------|---------------------------------------------------------------|-----------|----------------------------------------------------------------------------------|
| <b>1</b>  | a. garaik<br>b. garaiek<br>c. garaiak<br>d. garaietan          | <b>2</b>  | a. Eraldatzeko<br>b. Ernaltzeko<br>c. Erkatzeko<br>d. Eratzeko | <b>3</b>  | a. genituen<br>b. gintuzkeen<br>c. zituzkeen<br>d. genituzkeen   | <b>4</b>  | 4. ugalketa<br>b. zapalketa<br>c. asperdura<br>d. utzikeria   | <b>5</b>  | a. markarik<br>b. akatsik<br>c. generorik<br>d. nortasunik                       |
| <b>6</b>  | a. arren<br>b. guztietan<br>c. arabera<br>d. aldietan          | <b>7</b>  | a. dituenan<br>b. baititu<br>c. dituen<br>d. ditu              | <b>8</b>  | a. lehia<br>b. apustu<br>c. ihes<br>d. galera                    | <b>9</b>  | a. hogeia<br>b. hogeiek<br>c. hogeik<br>d. hoge               | <b>10</b> | a. ohi<br>b. omen<br>c. ei<br>d. ari                                             |
| <b>11</b> | a. saiakera<br>b. pertsona<br>c. lehiaketa<br>d. maketa        | <b>12</b> | a. era berean<br>b. aldiz<br>c. hots<br>d. esaterako           | <b>13</b> | a. apain<br>b. itsusi<br>c. luze<br>d. kaxkar                    | <b>14</b> | a. zientzialari<br>b. liburu<br>c. ikerketa<br>d. olerki      | <b>15</b> | a. etikak<br>b. senak<br>c. nahiak<br>d. formak                                  |
| <b>16</b> | a. agian<br>b. zer esanik ez<br>c. esanak esan<br>d. baliteke  | <b>17</b> | a. karranpa<br>b. zirrara<br>c. gezur<br>d. estutasun          | <b>18</b> | a. Hartara<br>b. Hara<br>c. Aitzitik<br>d. Alabaina              | <b>19</b> | a. noizbehinka<br>b. entzungor<br>c. etengabe<br>d. harrituta | <b>20</b> | a. gauza<br>b. asmo<br>c. halakorik<br>d. eredu                                  |
| <b>21</b> | a. mesprezatu<br>b. suspertu<br>c. sustatu<br>d. hautsi        | <b>22</b> | a. gainbegiratu<br>b. historia<br>c. iritzi<br>d. zirkulu      | <b>23</b> | a. dituzten<br>b. dituztela<br>c. dituztenekoak<br>d. dituztenak | <b>24</b> | a. petrala<br>b. jainkotiarra<br>c. makala<br>d. hutsala      | <b>25</b> | a. arte<br>b. ere<br>c. behintzat<br>d. egungo                                   |
| <b>26</b> | a. estaltzeko<br>b. garbitzeko<br>c. gurtzeko<br>d. egurtzeko  | <b>27</b> | a. Baita<br>b. Alabaina<br>c. Berdin<br>d. Ostera              | <b>28</b> | a. nagusigoak<br>b. apaizek<br>c. ipuinak<br>d. ezintasunak      | <b>29</b> | a. gorroto<br>b. atsegin<br>c. baztertzen<br>d. arbuiatzen    | <b>30</b> | a. arrakasta<br>b. diru<br>c. pisu<br>d. antza                                   |
| <b>31</b> | a. zuen<br>b. zuena<br>c. zuenean<br>d. baitzuen               | <b>32</b> | a. limurtu<br>b. iraindu<br>c. abandonatu<br>d. mantendu       | <b>33</b> | a. Bestalde<br>b. Aitzitik<br>c. Alderantziz<br>d. Azken finean  | <b>34</b> | a. urteko<br>b. urteetako<br>c. hamarkadako<br>d. hamarkada   | <b>35</b> | a. desberdinetarako<br>b. antzekoetarako<br>c. ezkorretarako<br>d. berdinetarako |
| <b>36</b> | a. aldakorak<br>b. konstanteak<br>c. iragankorak<br>d. lausoak | <b>37</b> | a. ondorioz<br>b. hori dela eta<br>c. alegia<br>d. era berean  | <b>38</b> | a. zitzaigukeen<br>b. litziguke<br>c. zatekeen<br>d. liguke      | <b>39</b> | a. justua<br>b. zehatza<br>c. bizkorra<br>d. ederra           | <b>40</b> | a. objektiboak<br>b. mardulak<br>c. ugari<br>d. gutxi                            |

## HE2 PROBA IDATZIA

### ERANTZUN-ORRIA

|                    |  |  |  |  |  |  |  |  |  |
|--------------------|--|--|--|--|--|--|--|--|--|
| Idatzi zure kodea: |  |  |  |  |  |  |  |  |  |
|--------------------|--|--|--|--|--|--|--|--|--|

## IRAKURMENA

[illegible][illegible][illegible][illegible]

# A eredu

|                           |  |  |  |  |  |  |  |  |
|---------------------------|--|--|--|--|--|--|--|--|
| <b>Idatzi zure kodea:</b> |  |  |  |  |  |  |  |  |
|---------------------------|--|--|--|--|--|--|--|--|

## IDAZLAN LUZEA-HE2

**Aukeratu gai hauetako bat. Gutxienez 250 hitz dituen idazlana egin behar duzu.**

**Letra-ikasketak.** Badirudi letretako ikasketek zientzietakoek baino prestigio gutxiago dutela gaur egun. Irteera profesionala, soldata onak... gehiago lotzen dira zientzietako ikasketekin. Zergatik ote? Justifikatua ote dago? Gaiaren inguruan idatziko duzu ikastetxeko webgunean argitaratzeko. **Hizpide hauek garatu behar dituzu:**

- Adierazi zer uste dagoen gizartean.
- Azaldu zure iritzia gaiaren inguruan.
- Eman adibideren bat.

**Wikipedia eta emakumeak.** Artikulu gutxi dago Wikipedian emakumeen gainean. Genero-ikuspegia txertatzeko beharra eta emakumeei lekua emateko beharra sentitzen duzu. Hori azaltzeko artikulua idatziko duzu ikastetxeko webgunean. **Hizpide hauek garatu behar dituzu:**

- Deskribatu egoera.
- Aztertu zer ondorio dituen horrek hezkuntzan.
- Azaldu genero-ikuspegia txertatzeko beharra.

[illegible]

# A ereduia

30.....

40.....

50.....

60.....

# A eredua

|                    |  |  |  |  |  |  |  |  |  |  |
|--------------------|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|
| Idatzi zure kodea: |  |  |  |  |  |  |  |  |  |  |
|--------------------|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|

## IDAZLAN LABURRA-HE2

Idazlan honek gutxienez 150 hitz izan behar ditu.

**Komiki-proiektua.** Ikastetxeko zuzendaria zara eta komiki-proiektua egin nahi duzu irakurle-zaletasuna bultzatzeko. Kontua da komiki gehiago behar duzula eta ikastetxeak ez duela erosteko dirurik. Idatzi gutuna familiei laguntza ekonomikoa eskatzeko. **Hizpide hauek garatu behar dituzu:**

- Azaldu proiektuaren nondik norakoak.
- Gogorarazi irakurtzearen garrantzia.
- Argudiatu laguntza ekonomikoaren eskaera.

10

20

# A ereduia

30.....

40.....

ERANTZUN ZUZENAK

HE2: Irakurmena (Zergatik zaitut gustuko)

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|----|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
| A | B | D | A | B | A | B | A | C | A  |

|    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
|----|----|----|----|----|----|----|----|----|----|
| 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 |
| A  | D  | A  | C  | B  | B  | B  | A  | C  | D  |

|    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
|----|----|----|----|----|----|----|----|----|----|
| 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 |
| C  | A  | D  | B  | D  | C  | C  | A  | B  | A  |

|    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
|----|----|----|----|----|----|----|----|----|----|
| 31 | 32 | 33 | 34 | 35 | 36 | 37 | 38 | 39 | 40 |
| D  | D  | D  | C  | A  | B  | C  | B  | D  | C  |